



Nola erabili?

1. Instalatu "HARROBIX" sistema eragilearen bertsioa jatorrizko sistema eragilean beste programa bat balitz bezala.

Horretarako, sortu alegiazko makina "[VirtualBox](#)" moduko aplikazioen bat erabilia, "HARROBIX" sistema eragilearen bertsioaren [ISO fitxategia jaitsi](#) eta erabili bertan.

Alegiazko makina sortzeko, egin honako hauek:

- "Berria" > "Izena: HARROBIX" > "Mota: Linux" > "Bertsioa: Ubuntu (64-bit)" > "Oraimen neurria (RAM):" > "4096 MB" > "Diska gogorra" > "20 GB"
- Sakatu > "Ezarpenak" > "Sistema" > "Ohinplaka" > "Ezaugarri Hedatuak:" > "Gaitu EFI (SE bereziak bakarrik)"

Alegiazko makina, ISO fitxategitik abiaraztean, aukeratu honako hauek:

- "Boot Live system" > "(initramfs) /cow format specified as 'overlay' and no support found" agertzean, sakatu > "Ctrl" "d"
- "Hasi saioa" leihoan > sartu "user"/"Us€r" saioa
- "HARROBIX" sistema eragilearen bertsioa instalatzeko, sakatu > "Instalatu HARROBIX" abiarazlea > "user(r)en pasahitza:" > "Us€r"
 - "Ongi etorri" leihoan, sakatu > "Euskara" > "Jarraitu"
 - "Teklatuaren diseinua" leihoan, sakatu > "Spanish" > "Jarraitu"
 - "Multimedia kodekak" leihoan, sakatu > "Jarraitu" > "ubi-prepare crashed" akatsa agertzean, sakatu > "Continue anyway"
 - "Instalazio-mota" leihoan, sakatu > "Hustu diskoa eta instalatu Systemback Live" > "Jarraitu"
 - "Non zaude" leihoan > "Madrid" > "Jarraitu"
 - "Nor zara" leihoan > "Zure izena:" > "user" > "Aukeratu pasahitza:" > "Us€r" > "Jarraitu"
- Instalazioa bukatu ondoren, "Instalazioa burututa" leihoan, sakatu > "Berrabiarazi orain"



“HARROBIX” 2022-2023 BERTSIOAK



Alegiazko makina abiaraztean, “Hasi saioa” leihoan, sartu > “user”/“Us€r” saioa

- Ezabatu “Instalatu HARROBIX” abiarazlea
- Instalatu eguneratzeak, horretarako, sakatu > “eguneraketak” abiarazlea
- Instalatu “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioaren aplikazio sorta; horretarako, sakatu > “instalazioak” abiarazlea
 - **“HARROBIX_MKT”** bertsioan > instalatu “Davini Resolve” aplikazioa; horretarako, zabaldu “davinci” karpeta eta jarraitu “davinci instalatzeko pausoak”
- “Egiaztatu bide-kontrolatzailea” mezuren bat agertuz gero, “Hasi saioa” leihoan, aukeratu > “Cinnamon software rendering” eta berez aukera hori agertzeko, egin honako hau terminalean:
 - “sudo gedit /etc/lightdm/lightdm.conf.d/70-linuxmint.conf” >
“user-session = cinnamon2d”
- Instalatu “VirtualBox guest additions”; horretarako, sakatu > “Txertatu Gonbidatu Gehigarrien CD irudia...” > “Exekutatu” > “pasahitza:” > “US€r”
- Berrabiarazi

Alegiazko makina abiaraztean, “Hasi saioa” leihoan, zabaldu > “user”

administratzailea ez den beste saioen bat; adibidez, “mss1”/“1617@M\$\$” saioa